



TARRAGONAKO TERRA ALTA ESKUALDEKO BISITA

Joan den astean Tarragonako Terra alta eskualdeko alkate, enpresari eta tokiko garapen agente talde bat Nafarroara etorri ziren, zonalde honetan Plazaola Partzuergo Turistikoa Plazaolaren natur bidearen inguruan egindako sustapen ekonomiko eta produktu turistikoaren garapena ezagutzeko asmoz. Plazaola Partzuergo Turistikotik antolatutako lan agenda dela eta delegazio hau Lekunberriko eta Leitzako udalen ordezkariekin elkartu diren, Uitziko tunela, Leitzako geltokia, Mendukilo kobak eta Peru harri parkea bisitatu zuten eta nekazaritzako elikagaiak eta ostalaritza sektoreko enpresari batzuekin kontaktuan jarri ziren.

